



Tolosa, Villabona eta Ibarako 'herriko tabernak' miatu dituzte

SALAKETA ▶ Horrelako ekintzekin «bake prozesua oztopatzen dela» diote 'herriko tabernetakoek'

GERTAERA ▶ Epailearen agindurik gabe, ertzain batek argazki kamara kendu zion HITZAko kazetari bati ▶ 3

LEITZA ▶

Aurrerak marka hautsi du ▶ 4

PAKO LARRAÑAGA ▶



N. LATABURU

«Epaiketa berriaren zain gaude orain»

Pako Larrañaga iloba heriotz korridoretik atera berri dute ▶ 5



Tolosako Intxurre 'herriko taberna'-n egin zuen Ertzaintzak atzo arratsaldeko lehenenengo miaketa. INIGO TERRADILLOS

TOLOSA ▶

Saharako eskolak laguntzeko helburuz, jaialdia antolatu dute gaur Beotibar pilotalekuan

Arpegi ezagunen arteko partidak eta proba desberdinek osatuko dute 19:00etan hasiko den ikuskizun berezia ▶ 2



Ernio-bea 3 • Tel.: 943 69 33 75
20150 Billabona



GIZARTEA ▶

Sahararen aldeko jaialdia egingo dute gaur Beotibarren

Aurpegi ezagunen arteko partidak eta probak osatuko dute ikuskizuna


ESTI EZEIZA

Gure Txokoa Elkarateak eta Sahara Bizi Tolosaldea Sahararen elkarateak antolatuta, *Frontoitik eskolara-Tolosatik Saharara* jaialdia egingo dute gaur, 19:00etatik aurrera. Bertara joan nahi duenak, sei euroko sarrera-laguntza ordaindu behar du.

Beotibar frontoian egingo den saharar eskolen aldeko ekitaldi honetan hiru norgehiagoka berezi jokatu dira. Lehenengoan, bi txirrindulari bikote frontenis partida bat jokatu dute: Abraham Olano eta Peio Ruiz Cabestani,

Ruben Gorospe eta Marino Lejarretaren aurka arituko dira. Bigarren partidari lau pilotari izango dira protagonista, hauek palaz, gomazko pilotarekin jokatu dute. Sebas argentinarra eta Garikoitz Mendizabal, Otero eta Berasategiren aurka lehiatu dira.

Hala ere, jaialdiko ikuskizunik bereziena azkenengoa izango da. Hemen, Armando Roca atleta tolosarra eta Paco Gereñu segurarra ariko dira. 80 metroko pista batean, Roca 120 metro egingo ditu korrika eta Paco Gereñuk 80 metro, hauetatik erdia hanka batean eta bestea atzeruntz.



Paco Gereñu eta Armando Roca. HITZA

ARMANDO ROCA ▶ ATLETA

«Niretzako probak desabantaila du, bihurtzako txikiengatik»

I. Garcia ▶ Aspaldidanik dabil atletismoan munduan Armando Roca (1934, Balaguer, Katalunia).

Nola sortu zen proba egitearena?

Urte batzuk badira elkar eza gutzen dugula Paco Gereñu eta biok. Berazubin egin izan dugu topo. Gure Txokoa elkaratekoek deitu ziguten eta baiezkoa eman genuen. Ea sahararren alde zerbait egitea dugun.

Zeinek irabaziko du?

Dagoeneko hiru alditan edo egin dugu frogia Beotibarren bertan eta batzuetan berak eta bestetan nik irabazi dut. Oso berdinduta dago proba eta edonork irabazi dezake.

Prestaketa berezia egiten ari al zara?

Probak niretzako desabantaila du, pistak bihurtzako txikiak dituelako eta horrek nire abiduran eragina izango du. Berazubin nik moldatutako pistetan aritu naiz entrenatzen. ◀

PACO GEREÑU ▶ KIROLARIA

«Biok batera iristeko pentsatuta dago proba, emozioa izateko»

I. Garcia ▶ Gaurkoa bezalako apustu eta proba berezietan parte hartu du Paco Gereñuk (1952, Segura), *Segurako Paco* ezizenez ezaguna.

Atzeraka eta hanka batean ariko zara. Nolatan?

Apustu asko egin izan ditut hanka batean. Umetatik besteak baino azkarrago ibiltzen nintzen hanka batean eta hori baliatu dut saltsan eta jolasean aritzeko.

Nork irabaziko du?

Buruz ateratako kalkuluak prestatuta dago proba. Biok batera iristeko pentsatuta dago, emozioa izateko. Biok ditugu aukerak irabazteko. Ez dago apustu bat bezala antolatuta, jendeak zerbait gustura ikusteko baizik.

Saharakoei laguntzea du garrrantzia.

Bai, hori da jaialdiaren helburua. Gure aldetik emozioa eta ikuskizuna jartzen saiatuko gara. ◀

iragarki laburrak ▶



Anoeta. Harritzko etxean 90 m²ko etxebizitza eraberritzeko, kanpora begira.

Belautza. Pabilloia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.

Belautza. Bifamiliarra, bi solairu eta 270 m²ko lursailarekin.

Berastegi. Familia bakarreko etxea salgai, 3.500 m²ko lursailarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Gela bateko apartamentua. Garajea aukeran.

Tolosa. Zabalaretan. Etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukalde, terraza, bainugela, komuna, trasteleku eta garaje ibxia.

Tolosa. San Frantzisko, 75m²ko atikoa salgai. Eraberritzeko.

Tolosa. Errementari kalean, 3 logelako atikoa. Egongela, sukalde, eta bainugela. Berritua.

Tolosa. Errementari kalean etxebizitza salgai. Eraberritua. 2 logela, 24m²ko egongela, bainugela eta sukalde.

Tolosa. Santa Klara, 90 m²ko etxebizitza salgai. Lau logela, sukalde, egongela eta bainugelarekin.

Tolosa. Benta Haundin, bi solairuko etxebizitza salgai. Eraberritzeko.

Tolosa. San Esteban, kanpora begirako 100m²ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.

Tolosa. Maitua zaharra. 15 garaje berri, guztiak itxiak. 30 m²tik aurrera.

Karga-jasogailuen bitarteko bidea. Eraikitze bidean.

Tolosa. Belate. Trasteleku berriak, argia eta aire erauzgailuarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m²ko bulego alokairuan.

Tolosa. Ugaran Goena, bi etxebizitzako baserria salgai, 110m² solairu bakoitzeko. Berritu beharrekoa.

Ventosa (Errioxa). Hiru solairuko familia bakarreko etxebizitzak salgai urbanizazio pribatuan.

Etxebizitzak alokairuan.

Alokairuan dauden etxebizitzak inguruko informazio gehiago jaso daiteke bulegora bertara joanda.

GIZARTEA ▶

Ikastetxeetan mobilizazioak deitu dituzte ostiralera

E. EZEIZA

Azken aste hauetan «Euskal Herriaren aurka eman diren bi erasoak salatzeko asmoz», Gazte talde batek, Segiren atxikipenarekin, ikastetxeetan geldialdiak egiteko deialdia luzatu du.

Oztopo eta muga guztien gainetik independentzia lelopean, 11:00etatik aurrera egingo da etenaldia, eta 11:30etan berri, manifestazioa egingo dute.

Lehenengo «erasoa» urriaren 21ean eman zen. Egun horretan, Segik, Gazte Egun nazionala ospatu zuen Senperen, eta hara joaterakoan, «Gendarmeriak zerbait autobus geldiarazi, eta beste batzuk, Hego Euskal Herrira itzularazi zituzten».

Bigarren aldiaren berri, hil honen 23an, «Espainiako Gerra auzitegiak eta Audentzia Nazionalak Euskal Herriko *herriko taberna* guztietan sartzeko agindua eman zien Guardia Zibilei. Helburua, Audentzi Nazionalaren arabera, bertan dauden traste guztien inbentarioa egiteko, horrela, *herriko tabernen* eta batasunaren arteko erlazioa frogatzen bada, Batasunaren ilegalizazioarekin ezarri zitzaizkion indemnitazioak objektuak enbargatu oradaintzeko». Hala, bi ekin-tza hauek, Euskal herriaren eta ematen ari den konponbide prozesuaren aurkako erasotzat jotzen ditu Segik.

EKONOMIA ▶

Zapategiak itxita izango dira gaur, egun osoan

E. EZEIZA

Gaur, San Krispin eta San Crispiniano eguna ospatzen da, zapatarien zaintzailea. Hori dela eta, Tolosako zapata denda guztiak itxita egongo dira egun osoan.

Bestalde, urteetako ohiturari jarraituz eta gremio handi honen eguna ospatzeko asmoz, meza izango da 10:00etan, Santa Maria parrokiaren.

GIZARTEA ▶

Tolosa, Ibarra eta Villabonako 'herriko tabernetan' miaketak burutu ditu Ertzaintzak

«Bake prozesuan gauden garai honetan, nola da posible, Euskal Herriko semeek espainiarren legeak jarraitzea» salatu dute 'herriko tabernetako' ordezkariak

ESTI EZEIZA

Espainiako Auzitegi Gorenak aginduta, atzo arratsaldean eskualdeko hiru herrietako 'herriko tabernetan' miaketa lanak egin zituzten ertzainak. Leitzako Torrea tabernan herenegun egindakoa izan zen eskualdeko lehena, baina kasu honetan, guardia zibilak izan ziren araketak egiten aritu zirenak.

15:15etik aurrera, Villabona, Tolosa eta Ibarra 'herriko tabernetan' sartu ziren ertzainak miaketa lanak egiteko. Lehenengoia Tolosakoa izan zen, Intxurren. Taberna hau alokairuan dagoenez eta jabea kanpoan zegoenez, giltzarik ez zuten sartzeko eta ateko kristala hautsi eta gero sartu ziren. Ordu bete inguru egon ziren bertan, eta karpetak, diru kuxta eta dokumentazioa begiratu zituzten besteak beste.

Epailea eta idazkaria aritu ziren ikuskapen lanetan, hala ere, hauekin batera beste 15 ertzain egon ziren inguruak eta jendea kontrolatuta izateko. Azken hauek aurpegia estalita izan zuten denbora guztian. Bestalde, hiru herrietan, ertzainekin batera, tabernako arduradun bat sartu ahal izan zen egiten zuten lana «garbia» zela ziurtatzeko.

Tolosakoa bukatutakoan



Ibarra Subegi 'herriko tabernan', herritarrak eta Ertzaintza, miaketak egiten ari ziren bitartean. HITZA



Villabonako Iratzar 'herriko tabernaren' aurrean Ertzaintzaren ekintza salatu zuten herritarrek. N. URBIZU

Ibarra Subegi herriko tabernara joan ziren agenteak nahiz bertan zeuden herritarrak. Ekintza honen aurrean 'herriko tabernetako' arduradunetako batzuk salatu nahi izan zuten «bake prozesuan gauden honetan nola den posible Euskal Herriko seme batzuk Espainiako legeak jarraituz horrelako ekintzak egitea». Ondoren, eskualde mailako erantzun bat datorren egunetan emango zutela ere adierazi zuten.

Ibarran jende gehiago bildu zen Subegi tabernaren aurrean. Hemen ere Tolosan jarraitutako prozesua egin zuten. 16:15ak inguruan sartu ziren lokal barrura. Herritar batek ireki behar izan zien atea eta ordu bete aritu ziren barruan, epailea eta idazkaria. 'Herriko tabernaren' kanpoaldean ibar tar ugari bildu ziren ekintza hau salatzen. Hala, hauek bat ertzaintzarengana hurbildu zen hitz egiteko, eta berak esandakoaren arabera, gaztelaniaz mintzatzera behartu zion. Iskanbilaren ondoren, ertzain batek eskuan zuen borra, jolas parkeko gailu baten kontra jo eta hautsi zuen.

Azken miaketa Villabonakoa izan zen. Hemen 16:50ak aldera azaldu ziren bi furgoneta. Ordurako 20 bat lagun zeuden Iratzar tabernaren atarian, hauen zain. Kasu honetan ere, beste bietan bezala, epailea eta idazkaria sartu ziren lokalean. Hasteko, tabernan zeuden bezeroak aterazi zituzten, eta jarraian, barrura sartu eta miaketa lanekin hasi ziren. Ordu bete aritu ziren tabernaren barruan araketak egiten. Tabernako arduradunen esanetan, dena ikuskatu zuten, CD-ak, dirua, edalontziak... Honen ondoren, eraikineren aurrean zeuden herritarrak, kartelak eskuetan zituztela, ohiuka hasi ziren agenteei eta atzetik joan ziren Kale Berriraino.

Ertzain batek argazki kamera kendu dio HITZAko kazetari bati, epailearen agindurik gabe

Ibarra 'herriko tabernaren' kanpoaldean gertatu zen eta Tolosa Herria Hedabideek salaketa sartuko dute

ERREDAKZIOA

Epailearen agindurik ez izan arren, ertzain batek TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAko kazetari bati argazki kamera kendu zion atzo.

Ibarran gertatu zen hori, arratsaldean. Laurak eta laurden aldera ertzainak joan ziren

Subegi 'herriko tabernara', Espainiako Auzitegi Gorenak aginduta, Batasunaren ilegalizazioa guztiz gauzatzeko hango ondasunen likidazioa egin nahian. Denera 20 bat ertzain azaldu eta haietako bi kanpoan geratu ziren, han inguruan zeudenei distantzia batera egoteko exijituz. 'Herriko ta-

berna' kanpoan zegoen orduan HITZAko kazetaria informazioa betetzeko asmoz eta ertzainak esandako tokira joan zen. Bere lana bete, argazkiak ateratzeari ekin zion, informazio eta askatasun eskubidean oinarrituta.

Kazetaria argazkiak ateratzen ari zela ikustean, ertzain

bat harengana joan zen, hanka zapaldu zion, bultzatu ere bai eta kamera kendu zion. HITZAkoak esan zion kazetaria dela eta ertzainak txoko batera eramane zuten. HITZAkoak kazetari kreditazio txartela erakutsi zion eta kamera itzultzeko eskatu.

Izan ere, ertzainak ez zeukan hori egiteko agindu judizialik eta, modu horretara, kamera kentzea ez da legezkoa. Alferrik. Poliziak, Espainiako Norkasun Agiria ere eskatu zion,

eta bi agiriak hartu, itxoiteko esan eta joan egin zen.

Kazetariak denbora batera berritoki eskatu zion kamera eta itzultzeko, baina poliziak erantzun zion dei baten zain zegoela, kazetaria «identifikatzen» ari zirelako. Bostak eta laurdenean itzuli zituzten HITZAkoari kamera eta agiriak.

Kasuaren larritasuna ikusita, HITZaren enpresa Tolosa Herria Hedabideek salaketa jarriko dute Tolosako epaitegian hurrengo egunetan.

VILLABONA ▶ KIROLA

Uztaritzeko Kapito Harri da Endika Abrileko txapelduna

Donibane Lohitzuneko Luzeaz Gazte taldeari 13-5 irabazi zion igandean

IMANOL GARCIA

Behar-Zana elkarteak antolatzen duen Endika Abril Txapelketako aurtengo irabazlea Uztaritzeko Kapito Harri taldea izan da. Donibane Lohitzuneko Luzeaz Gazte taldeari 13-5 irabazi zioten. Ezustekoa izan zen Kapito Harri horrelako aldearekin irabaztea, besteak baitziren favoritoak. Luzeaz Gazteko pilotari garrantzitsuenek ez zuten beraien maila eman eta hutssegite asko egin zituzten. Igandean egindako haize bortitzak agian eraginik izan zuten.

400 lagun inguru izan ziren partida ikusten, parekotasun handia eta, ondorioz, emozio gehiago izango zelakoan. Hala ere bigarren aukera izango dute, azaroaren 5ean bi taldeak berriro lehiatuko baitira Villabonan, Erreboteg egunean egin ez zen partida jokatzeko.



Goputzarekin mugimendu ikusgarriak egin zituzten erreboteko jokalariek igandeko partidan. HITZA

GIZARTEA ▶

Aiztondoko III. Argazki Rallya igande honetan

ERREDAKZIOA

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak hilaren 29rako, datorren igandean, III. Argazki Rallya antolatu du. Nahi duen edozein zale aurkez daiteke. Izen ematearen kostua 10 eurokoa izango da eta hiru modu daude horretarako: Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko bulegoetan (Muñoa kalea, 36 behean, Zizurkil) 08:00etatik 15:00etara, 943 69 39 30 telefono zenbakian eta rallyaren egunean bertan, 09:30etik 10:30era Adunako udaletxe-ko atarian.

Ibilbidea Larraul, Alkiza, Aduna eta Zizurkil herrietako muga barruetan izango da. Sariak hauek dira: 1. 350 euro eta garaikurra; 2. 300 euro eta garaikurra; 3. 150 euro eta garaikurra; lau accésit 75 eurokoak eta garaikurra; eta Aiztondo saria: afari eder bat.

LEITZA ▶ KIROLA

Aurrerak marka hautsi du Arkiskilen, 8-1 emaitza lortuz Lekunberriren aurka

Lekunberri eta Leitza arteko derbia izan arren, jende gutxi izan zen

N. GARZIA

Igandean Arkiskilen jokaturako partidan sartu zituzten 8 golekin marka hautsi zuten Aurrera taldeak. Derbia erabatean leitzarrek menderatu zuten eta Lekunberrikoek gol bakarra sartzeko aukera besterik ez zuten izan. Jon Arangoa jokalariren hitzetan, «gozatzeko moduko partida izan zen».

Antton Gomezek 3 gol sartu zituen, Iñigo de Carlosek 2, Dani Alvarezek 1, Jon Arangoak beste bat, eta Iñaki Antolinnek azkenekoa. Bi zatitan ederki banatu zituzten golak, lehengoan 4 sartuz, eta bigarren goan beste hainbeste.

Leitzarrek gogotsu atera ziren zelaiera hasieratik, derbia baitzen, eta partidu konpletoa jokatu zuten. Horrelako emaitzik ez zuten espero inondik inora, «aurreko urteetan Lekunberriren aurka partida gogorrak egokitu zitzaizkigun eta



Aurrera taldea aurreko partida batean. J. ASTIBIA

horregatik bagenekien gogotsu atera behar genuela, aurreko urteetan hartutako sustorik ez hartzeko», dio Jon Arangoa jokalaririk. Lekunberrikoek dagoenez, normalean ongi xamar ibiltzen diren bizpahiru jokalarik bajan zeuden eta horrek hauen jokoan eragin zuen.

Derbia zela ez zen gehiegi nabaritu, ez baitzen Arkiskileren jende gehiegi bildu.

Hurrengo partida Altsasun izanen da, larunbatean. Gaur edo bihar zehaztuko dute ordua. «Altsasun kontrako partida ere gogorra izanen da, bai irabaztera aterako gara».

ANOETA ▶

Ezhoiko bilkura gaur arratsaldean udaletxean

Udal plenoaren ezohiko bilkura egingo dute gaur, 20:15etik aurrera, udaletxean, gai hauekin: alkatetxaren ebazpenen berri ematea, Anoetako Ezker Abertzalearen izenean Jose Mari Urkolak aurkeztutako mozioa onesteko proposamena eta 2005 ekitaldiko aurrekontuari buruzko likidazioa onetsiz Alkatetzak ebaztitako dekretuaren berri ematea.

VILLABONA ▶

Baskonia hizpide Aritzaren ikastaroan

Aritza Kultur Elkartearen *Euskaldunon sustraiak eta memoria* ikastaroaren baitan, datorren astelehenean, hilak 30, Mikel Sorauren *Baskonia, bisigodoen, frankoen eta musulmanen artean* hitzaldia emango du.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
 - ▶ Anoeta-Alkiza-Herniale. Medikua: 65 23 39
 - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
 - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
 - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
 - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
 - ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
 - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
 - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
 - ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
 - ▶ Orendain. Medikua: 655595
 - ▶ Orea. Medikua: 682228
 - ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- ### Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egotiza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

PAKO LARRAÑAGA ▶ PAKO LARRAÑAGA PRESOAREN OSABA

«Epaiketa berria eskatu dugu, baina horren erantzunik ez dugu jaso»

Bere iloba Pako Larrañaga Filipinetako presondegi arrunt batera pasatu dute, bi urtetan heriotz korridorean egon ostean

NEREA URBIZU

Azken berri pozgarria jaso zuten lehengo astean, alegitar jatorria duen Pako Larrañaga heriotz korridoretik atera baitzuten. Honetaz aritu da hizketan izen bereko presoaren Alegiako osaba.

Zer moduz hartu duzue albisteak?

Pozik, albistea pozgarria da. Berez, iloba heriotz korridoretik at dagoela jakitea ona izan da, beste lasaitasun bat dugu familiakook, eta baita berak ere. Hala ere, ez luke kartzelan egon beharrik, baina pauso bat izan da.

Filipinetako kartzelan, nolako da orain Pakoren egunerokoa?

Desberdina, bai moralki eta

baita fisikoki ere: duela bi urteko presondegira itzuli da, eta han aurretik egindako lagunak ditu, komunikazio gehiago, eguzkia ikusten du, kirol pixka bat egin dezake, eta beste lasaitasun bat dauka. Hala ere, haserre dagoela esan behar da, berak barruan ez lukeelako egon behar, baina hobeto egotearekin lasaiago gaude.

Zer egin dezake Gloria Macapagal, Filipinetako lehendakariak honen aurrean?

Berak maiatza aldera Pakori eta beste 1.200 presori *perrogativa de gracia* delakoa aplikatu zien, hau da; heriotzeko korridoretik at geratu ziren, eta kartzela-zigorrera pasa. Harrezkero, gutxinaka presoak kartzela ezberdinetara bidaltzen ari dira. Gauza da Pakore-



NOELIA LATABURU

kin pauso gehiago emango zituela, barkamena emango ziola, alegia, uste genuen. Orain Filipinetan ez da heriotz korri-

dorerik, eta hori pauso handia da.

Orduan, zein da orain eman beharreko pausoa?

Guk eman beharrekoa eman dugu. Orain erabakia itxaroten ari gara. Izan ere, epaiketa berria eskatu zuen familiak, aurrekoan egindako epaiketa barrerriaren ondorioz. Euskal Herriko eta Espainiako hainbat politikariek laguntza eskaini eta eman digute, abokatuek egindako epaiketa justuak izeneko aurrera eraman zuten Pakoren kasuarekin... Hau 2005eko abuztuan izan zen, eta aztertu ondoren aurtengo uztailean Nazio Batuen Erakunde Giza Eskubideetako Batzordeak berak egindako erresoluzioari eman beharreko erantzunaren zain gaude: hori da bideetako bat eta horri heldu diogu. Bestea, desagertuta dagoen testitu babestua deklarazioa izango litzateke, baina hori oso zaila izango da.

Erantzunen bat Filipinetako Gobernuak atzoko egunerako eman behar zuen.

Bai, baina guk dakigula ez da ezer berririk gertatu. Hiru hilabete zituzten erantzuna emateko, uztailearen 24tik. Baina Filipinetako gobernutik ez dute ezer esan oraindik. Dena den, oso itxaropentsu gaude etxekook, eta baita bera ere.

KOMUNIKABIDEAK ▶

Irrati esatari izan nahi duenarentzat ikastaroak bi larunbatez, Txolarren

Webgune anitza eta berritzailea estreinatu du eskualdeko irrati libreak

N. URBIZU

Lehengo larunbatean Txolarre irrati langileek prentsaurrekoa egin zuten, hurrengo urteari begirako helburu nahiz xedeak zehazteko eta ezagutzera emateko asmoz. Sei urte bete berri dituen eskualdeko irratiak hainbat berrikuntza jarriko ditu martxan.

Han izan ziren Jon Miranda, Txolarre irrati esatari ofiziala, Igotz Alkorta eta Leire Zubeldia. Baina esan zuten bezala «atzean talde handia dago, denak gara eta denek egiten dugu Txolarre».

Hiru egitasmo azpimarratu zituzten aurkezpenean: webgunea (www.txolarre.org), egitarau berria eta irrati ikastaroa. «Herritarren parte-hartzeak bideratuko du proiektua».

Webgunean «ahalegin handia eskatu diete web-ak, baina emaitza oso duina dela» iruditzen zaie. Bide batez, «Mikel Mirandari eta Maialen Urbietari

eskerrak eman nahi dizkiegu diseinuz eta arlo teknikoaz arduratu direlako».

Berritasunen artean ikastaroak egingo dituzte hurrengo bi larunbatetan. Doan izango da eta informazio gehiago web-ean edo 943 69 80 38 telefono zenbakian lor daiteke.

Bestalde, Leire Zubeldia izango da *Tolosaldeko Ahotsa* irratsaioaren esatari berria.

IKASTAROAK ▶

ARGIBIDEAK

Eguna. Hilaren 28an eta azaroaren 4an.

Ordua. 16:00etan bi egunez.

Helburua. Irratiko arlo teknikoaren oinarriko erabilera ikusi eta landu. Esatari izateko, gutxiengoa.



Igotz Alkorta, Jon Miranda eta Leire Zubeldia. ESTI EZEIZA

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

IBARRA ▶ POLITIKA



Jose txo Otegiri omenaldia 25. urteurrenean

M. Soroa ▶ Badira 25 urte Jose txo Otegi «erahila izan zela Guardia Zibilaren eskuetan». Hori dela eta, urteurrena ospatzeko omenaldia egin zioten senitarakoek, lagunek eta herritarrek Ibarako hilerrian pasa den larunbatean. Haste-ko, dantzariak agurra dantzatu zuten txistulariaren laguntzaz eta ondoren bertsoariak saio-txoa eskaini zuten. Atzetik, Jose txoren laguna izandakoak haren bizibideak kontatu zituen. Amaitzeko kantu bat kantatu zuten gitarraz. HITZA

LEABURU ▶

Liburutegiak atek irekiko ditu gaur, 17:00etan

M. SOROA

Leaburuk badu berri onik, izan ere, gaur arratsaldeko bostetan liburutegiak atek zabalduko ditu. Udaletxeko beheko solairuan izango da inaugurazio ekitaldia eta herritar guztiak daude gonbidaturik liburutegia ezagutzera.

Inaugurazioaren ondoren, ipuin kontaketa izango da Idoia Sanchezen eskutik.

OREXA ▶ KULTUR ASTEA

Ekintzaz blai dator Orexako Kultur Astea

Gaur hasi eta azaroaren 4ra arte adin guztietakoek hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute

MADDI SOROA

19. urtea izango da aurtengoan Orexan Kultur Astea edota kultur hamabostaldia antolatzen dutena. 1998. urtean Orixeren mendeurrena izanagatik sorturiko kultur ekintzek jarraipena izan dute beraz gaurdaino.

Aurtengoan, urtero legez, adin guztietako lagunek izango dute ekintza ezberdinez gozatzeko aukera. Haur jolasak, mendi ibilaldiak, diaporama, hitzaldiak... denetik izango da udaletxeko ganbaran eta ondo pasatzeko aukerarik beraz, ez da faltako. Kultur Astearekin amaitzeko, DJ Bullen musika emanaldia izango da. Antolatzailerik herritar guztiak animatzen dituzte parte bertan hartzera.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Gerra Zibila. Gerra zibilak Tolosaldean izandako eraginaren inguruan astero egindako kronikak ikusgai dituzte oso-osorik gure webgunean. Sar zaitze bertara eta gerra zibilaren inguruan dugun informazio guztia eskuratu ahal izango duzu.

EGITARAUA ▶

Gaur hasi eta azaroaren 4ra arte hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera izango da Orexako 2006ko kultur asteen, ekitaldi guztiak udaletxeko ganbaran izango dira.

GAUR

21:30. Hitzaldia: *Orexa eta auzo-herrien arteko auziak* Aranzadi Zientzia Elkarte David Zapirainen eskutik.

ETZI

22:30. *Nora hoo neska* antzerki emanaldia Txirene taldearen eskutik.

URRIAK 28, LARUNBATA

17:00. Haurrentzat ibilaldia herri inguruan, gaztain bilketa eta ondoren gaztain jana.

URRIAK 29, IGANDEA

14:00. Uitz-Orexa ibilaldia eta herri bazkaria. Ondoren, kantu saioa Jon eta Jaionerekin.

URRIAK 31, ASTEARTEA

22:30. *Tabuak salda egiteko* emanaldia Pako Aristi eta Mikel Markezzen eskutik.

AZAROAK 1, ASTEAZKENA

16:30. Haurrentzako jolasak eta ondoren merienda.



laz, pailazoak Orexan. m.s.s

AZAROAK 2, OSTEAGUNA

21:30. *Bake prozesua: zertan da?* abiapuntuzat harturik, hitzaldia izango da LAB sindikatuko Rafa Diezen eskutik.

AZAROAK 3, OSTIRALA

22:30. *Zelanda berria.* *Naturaren hitzak* diaporama Marron-en eskutik.

AZAROAK 4, LARUNBATA

21:00. Herri afaria eta ondoren *Orexak 100 biztanle* lelopean gala D.J. BULLen disko festarekin.

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Merezitako garaipena lortu du Ibarrak

3-5ekoarekin partida garrantzitsua irabazi zuen Ibarrak kantabriako Muriedasen aurka



Sailkapen orokorreko 2. postuan da Ibarra 16 punturekin. MADDI SOROA

ERREDAKZIOA

Merezitako garaipena lortu zuen Ibarrak pasa den larunbatean Muriedas-Urrutia talde kantabriarraren aurka jokaturiko partidari. Bigarren zatian, arbitroen jokaerak garaipena arriskuan jarri bazuen ere, 3-5ekoarekin garaipen garrantzitsua lortu zuten ibartarrek. Hala, sailkapen orokorreko bigarren postuan kokatzen da Ibarako taldea 16 punturekin.

Lehenengo zatian nagusi izan ziren ibartarrak, Muriedasek ezin izan zuelarik aurkariaren jokoa idargabetu. Partida hasi eta soilik 12 segundo pasa zirenean sartu zuen partidako lehen gola David Pradosek. Lasaitasuna eskuratu

zuen orduan Ibarrak eta baloia mugitzen hasi zen, uneoro sortu zituelarik gol aukera gehiago. Muriedasek ezin izan zuen bere zatitik atera.

Modu horretan etorri ziren 2. minutuan Pradosek, 8. minutuan Camiok eta eta 11. minutuan Labacak markaturiko golak. 0-4 Ibarrak eta Muriedas, berriz, tokiz kanpo zegoena eta ez zuen ia arriskurik sortzen.

Bigarren zatia oso bestelakoa izan zen, izan ere, Ibarra gehiegi fidatu zen eta Muriedas neurketa berdintzen hasi zen. Azkenean, 3-5 ekoa etxekoan alde.

Larunbat honetan, Ulzamako taldearen aurka jokatu du Ibarrak, ohi bezala, 18:30ean Belabietan.

KIKE AMONARRIZ ▶ ETB-KO 'MIHILUZE' SAIOKO AURKEZLEA
INIGO TERRADILLOS

Urriaren hasieran ekin zion ETB1eko *Mihiluze* saioak denboraldi berriari. Aldaketa batzuekin gainera, besteen artean, astean behin eman ordez, egunero, astelehenetik ostiralera, dagoela ikusgai. Helburua, baina, berbera da, hau da, Euskal Herriko mihiluzerik handiena bilatzea. Bertatik jada Leitzako Virginia Mariazkurrena eta Amaia Agirre bikotea igaro da, Villabonako Urtzi Ugalde eta Jon Garmendia ariko dira lehiatzen ondorengo egunetan, eta hauen ostean, beste billabonatar bikote bat, amasar bat eta Berastegitiki joandako bi lagun ere ikusteko aukera izango da. Saioko aurkezleak, Kike Amonarriz tolosarrak, eman dizkigu denboraldi berriaren xehetasunak, eta horretaz gain, euskarazko umoreaz, euskaldunon umoreaz eta Tolosako umoreaz jardun gara berarekin.

Bigarren denboraldiari ekin berri diozue. Lehenengoa espero bezala joan al da?

Guretzat balorazioa oso ona izan da, oso pozgarria alde guztietatik ikusita. Izan ere, guk telebistari proiektua aurkeztu genionean, bagenekien arrisku handikoa zela, lehiaketa bat ari ginelako planteatzen 22:00etan, *prime time* orduan, eta hizkuntzaren inguruko programa delako, eta horrek beti izan du herri honetan kutsu pedagogikoa. Audientziaren aldetik eta iritziaren aldetik, baina, erantzuna oso polita izan da. Bestalde, oso pozgarria izan da ikustea erlazio oso ona dugula ikusleekin, ia egunero jasotzen baititugu argazkiak, komentarioak, istorioak... Horren ostean, Euskal Telebistak lehiaketa mantentzea erabaki zuen, ordutegian aldaketa eginez: ordu erdiko eguneroko saioa.

Ordutegiaz gain, zein dira aldaketa nagusiak?

Proba guztiak mantentzen dira, baina egituraren eta erritmoaren aldaketak daude. Lehen lehiaketa-show bat zen, eta orain lehiaketa. Proba berriak ere sartu ditugu. Azken finean, hizkuntzaren inguruko kolore guztiak bilduko dituzten probak sartzen saiatu gara. Lehiakideei dagokionez, egunero bikote bat kanporatu eta berri bat sartuko da lehiara. Saiok 1.000 euro jarriko ditu jokoan egunero eta gainera, azken probara iristen denak pilotutako diru kopurua irabaztetako aukera du.

Zein dira saioaren ekarpenak hizkuntzari dagokionez?

Gure hizkuntz ondarean edota kaleko argotan ia galduta dauden hitzak baina berreskuratu

«Tolosako historian umorea funtsezko elementua izan da»

Kike Amonarriz tolosarrak era askotan landu du umorea; egun, Euskal Herriko mihiluzeenaren bila ari da lanean



I. TERRADILLOS

PROGRAMA

«Hizkuntzaren inguruko kolore guztiak bilduko dituzten probak sartzen saiatzen gara»

EUSKAL UMOREA

«Euskal Herrian umore mota asko daude: kostaldeko umoreak ez du zerikusirik barnealdekoarekin»

TOLOSAKO UMOREA

«Inprimategia zegoela kontuan hartuta, Tolosako umorea landuxeagoa dela esan daiteke»

daieteezkeenak proposatzen ditugu. Euskal Herri osoko mihiluzerik ulertzeko moduko hizkera erabili nahi dugu, baina Euskal Herri osoko mihiluzerik erabiltzen dituzten hitzak eta esamoldeak ezagutu nahi ditugu eta gustatzen bazaizkigu gure egun.

Hizkuntzaren inguruko bitxikerien atala berezia da guztien artean.

Euskararen inguruko bitxikerien saila da, euskarara gaizki itzulita dauden kartelak, esaterako, eta arrakasta handia izan du tarte honek. Guk bilduma bat egina genuen, eta horrekin hasi ginen, baina harrigarria izan da, zenbat bildu ditugun eta zenbat jende bidali dizkigun, izan ere, ia egunero jaso ditugu. Badakigu leku batzuetan aldatu dituztela kartel horiek. Era bat izan daiteke, oso modu umoretsuan eta subliminalen adierazteko itzul-

pen traketsak egin dituztenei «tratatu gaitzazue ondo», edota beraietaz katxondeatzeko.

Saio hau egitekoan zailtasun handienak?

Ordutegia zaila dela egia da, baina ia ordutegi guztiak dira zailak. Euskaraz, ETB1ean, ordu eta egun onik aurkitzea zaila da. Hori iraganeko kontua da. Kate asko daude, konpetentzia handia da, beraz, eta euskarazko telebista itsaso horretan dabilen txalupa txiki-txiki bat da. Ahal den neurrian produktu erakargarri bat egiten saiatzen gara, beraz.

Une bereziak izango zenituzten saioaren grabazioetan.

Oso une onak izan ditugu, bai gure artean, bai eta parte-hartzaileen artean ere. Saioa nirekin aurkezten duen Ilaski Serano barre errazekoa da eta barrez hasi eta denak jarratzea gertatu zaigu; lehiakide batzuen ateraldiekin oso une

politak bizi izan ditugu. Bizipoz eta esker oneko programa da, oso harreman ona dugulako gure artean, lehiakideen artean eta ikusleen artean. Saioaren barruan horrela bada, kanpora begira, transmitzera koan, ere hala izango da; barruan aspertuz gero zaila izaten da jendeari ondo pasatze ko zeozer eskaini ahal izatea.

Euskaldunon umorea nolako da?

Euskarazko umorea nekazal giro batean garatu da, oso baldintza txarretan, eta horrek estereotipoak sortu ditu. Izakerak ere asko egiten du; egia da Kuban errazago imajinatzen dugula festa bat eskimalen festa bat baino, klimak ere lagun du egiten duelako. Euskal Herrian umore mota asko daude: kostaldeko emakumeen umoreak adibidez, ez du zerikusirik barnealdekoenarekin. **Eta eskualdeko umorea?**

Tolosako umoreak baditu oso atal politikak. Orain 5 urte *Txorakeriak*, *Tolosa Euskal Herriko irriburu* liburua aurkeztu nuen. Tolosan umorea funtsezko elementua izan da, Inauteriak ikusi besterik ez dago. Tolosan idatzitako lehen euskarazko idazkia esaterako, Leaburuko apaizak Tolosako Udaleko idazkariari buruz zabaldu zituen bertso batzuk izan ziren, 1619an. Idazkariak bere emazteari adarrak jartzen zizkiolako ziren ondorengo bertsoak: *Eduki geldirik porrua eta jantzak sagar berua*. Garbi dago ez zela frutaz ari. Tolosako alkate izandako Samaniegoren bertso erotiko, satiriko eta umorezkoak ere baditugu, eta horrela beste hainbeste. Hemengoa umorea, inprimategia zegoela kontuan hartuta, landuxeagoa dela esan daiteke. Kostaldeko umore sexualagoa litzateke, eta iparraldeko sarkastikoagoa.

Euskaraz umorea lantzea zaila da.

Dena pedagogiko eta haurrentzako den zerbaite bezala bihurtzeko arriskua dago Euskal Herrian euskaraz horrelako lan bat egitean. Nik landu dudana umorea helduentzako umorea izan da, baina erosleak batez ere umeak dira. *Mihiluze* ez da umeentzako saioa, baino egia da, haur eta gazteek ikusten dutela batik batik bat ETB1 helduekin batera. 30-50 urtekoen generazioak dira euskaraz guztien eta okerren dakitena, eta adin kopuru hori da faltan botatzen duguna. Bestalde, umorea beti lantzen duzu erreferente jakin baten inguruan, eta erreferente gehiago dauzkagu erderaz; esaterako, *Haizeak eraman zuena* agian ez du inork ulertzen, eta *Lo que el viento se llevo* mundu guztiak ulertzen duenez, errazagoa da txiste bat sortzeko. Dena den, hizkuntza zenbat eta gehiago erabili eta erreferentzia komun gehiago izan orduan eta umore egiteko aukera gehiago izango dira. Hori dena batera joango da, hizkuntzaren normalizazio prozesuak aurrera egiten duen neurrian.

Umorezko saioak egin dituzue, Txiskola, adibidez.

Arrakasta handia izan zuen. Une hartan txisteak euskaraz era normal eta barregarrian kontatzen zituen lehenengo programa izan zen. Honekin jauzi bat eman genuen, txistek euskaraz grazia egiten dutela frogatu zen.

Zer egin behar da Mihiluzen parte hartu nahi izanez gero?

Lehiakide bezala, publiko bezala joateko edota edozer gauzetarako mihiluze@eitb.com helbidera, edo 943 01 17 80 zenbakira hots egin behar da.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko urriaren 25a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

21

hotzera

19

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Gure Txokoa eta Sahara bizi Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatuta, *Frontoitik eskolara, Tolosatik Saharara* jaialdia izango da Beotibar pilotalekuan Saharako eskolen alde, 19:00etan. Sarrera, 6 euro.

Tolosa. Ereite elkarte kulturantzak antolatuta, Zugarramurdiko kobetara irteera hurrengo igandean, hilaren 29an. 10:30ean irtengo dira Santa Klaratik. Izen-ematea 678 63 83 94 telefono zenbakian.

Tolosa. Eskaparatismo ikastaroa Kultur Etxean, ostiralera arte, Merkataritza Federakuntzak antolatuta. 14:15etik aurrera izango da.

Tolosa. Abesbatza Lehiaketako sarrera solteak salgai daude TEEK (CIT) Emeterio Arrese kalean 2 duen bulegoan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maria Rosario Ormazabalaren koadroen erakusketa azaroaren 5era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

Tolosa. *Espierientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregia eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

Tolosa. *Destambul kolorek, soinuk, zaporek* jardunaldien baitan, *Topaketa* erakusketa Leidor aretoan azaroaren 12a bitarte, eta Fronton jatekxan azaroaren 17ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Tolosa

Areso. Goizueta, F. Loidi Etxea. 112.
Tolosa. Ollarrea, A. Korreo kalea, 2.
943 67 01 28.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

«Giro polita» Ugane auzoan

ALDABA ▶ Larunbatean Aldabako Ugane auzoan, urtero moduan, egun beteko jaiak antolatu zituzten. Hango giroa azpimarratu dute auzokideek



Ikaztegiatiko dantzari txikiak emanaldia eskaini zuten larunbatean. NEREA URBIZU



Uganeko 8. Txirindulari Igoeran, hainbat gurasok eta gaztetok hartu zuten parte. NEREA URBIZU

NEREA URBIZU

Urtero bezala, aurtur berri, egun berezia igaro herri dute Aldabako Ugane auzoan, izan ere, auzoko jaiak ospatu zituzten pasa den larunbatean. Hala, goizean zehar hainbat ekitaldi egin zituzten auzo txikian. VIII. Txirindulari Igoeran hainbat gaztetxo eta guraso ere animatu ziren bi kilometroak igotzera. Irabazlea Eñaut izan zen, ondoren, Unai, Xabi eta Uxe. Indarberritzeko, han zituzten prest pintxoak eta salda beroa esperoan, eta baita helduagoentzako mojito prestatu berria edateko aukera ere.

Eguraldi onak asko lagundu zuen jai eguna edertzeko. Ikaztegiatiko dantzari txikiak saioa eskaini zuten, txistuaren, esku-soinuaren eta trikitixaren laguntzarekin. 10 bat dantza saio eskaini zituzten guztira, «zein baino zein hobe dantzatuta». Bertso saioa ere izan zen ondoren, eta «oso giro polita zabaldu zuten». Izan zen bertsolariekin batera jendaurrean bertsoetan egitera animatu zen auzotarrak ere. Datorren urterarte zain egotea geratzen zaie orain Uganeko auzokideei.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Iraiti (Tolosa). Bost muxe handi handi zure urtebetetze egunean etxekoan partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza
TOLOSAN

Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza
LEITZAN

Udaletxe bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...